

UDAL BATZARRAREN AKTA

Akta zenbakia: 5/2002

Bilera data: 2002-05-09

Bilera mota: Ohiz kanpoko osoko bilkura

Deialdia: Lehenengoa

Ordua: 19:35 – 20:35

Tokia: Udaletxeko areto nagusia

Bertaratutakoak:

Alkatea: Jose M^a Sarasola Goenaga

Alkate ordea: Pedro M^a Peñagarikano Labaka

Zinegotziak:

Miren Maite Aizpurua Etxeberria

Manuel Odriozola Iruretagoiena

Mikel Errazkin Agirrezabala

Rafael Uribarren Axpe

Jose Ignacio Otermin Garmendia

Mikel Zubillaga Galarraga

Jose Martin Uzkudun Agirre

Idazkaria:

Iñaki Arrue Espinosa

Aztergaiak:

1.- Udalbatzarrak 2001eko abenduaren 11ean, 2002ko urtarrilaren 31ean (2 pleno), martxoaren 7an eta apirilaren 8an egindako bilkurei dagozkien akten onespena.

2.- Alkatetzako Dekretuen berri ematea, 73 zenbaitik 210ra, biak barne.

3.- EHUko psikologia fakultatearen eta Anoetako Udalaren arteko trebakuntza-lankidetzarako hitzarmena berri ematea.

4.- 2.000 urteko likidazioaren onarpen-dekretuaren berri ematea.

5.- Idahoko legebiltzarraren ekimenaren aurrean adierazpen instituzionalari buruzko mozioa.

6.- "Euskal Errefuxiatu politikoak Venezuelan" buruzko mozioa.

7.- Giza Eskubideen aldeko mozioa

8.- Premiazko gaitzak, mozioa gizarte zerbitzuetako hitzarmenari buruzkoa.

9.- Anoetako Emakumeak: 2002. urtean jorrazteko plangintza orokor baten proposamena onartzea.

Esan-eginak eta erabakiak:

1.-. Udalbatzarrak 2001eko abenduaren 11ean, 2002ko urtarrilaren 31ean (2 pleno), 2002ko martxoaren 7an eta 2002ko apirilaren 8an egindako bilkurei dagozkien akten onespena.

Aipatutako aktak alkateak irakurri ditu eta eztabaidarik egin gabe eta inongo eranskinik gabe dauden daudenean onartu ditu udalbatzarrak.

Erabakia

Bertaratutakoek 2001eko abenduaren 11ean, 2002ko urtarrilaren 31ean (2 pleno), 2002ko martxoaren 7an eta 2002ko apirilaren 8an egindako bilkuraren aktak aho batez onetsi dituzte.
--

2.- Alkatetzako Dekretuen berri ematea, 73 zenbakitik 210 zenbakira.

Alkateak egindako ebazpenen berri eman du, ebazpen horien zenbakiak 73tik 210era bitartekoak izanik, biak barne.

EAJ-PNV/EA koalizioko bozeramailea den Otermin zinegotzi jaunak hitza hartu du 193. dekretuari buruzko bere kezka adierazteko, ordezkariak bere txostenean esaten duenez, kasu horren kontratazioak ez dituela betetzen legezko betebeharrak.

Alkateak erantzun dio, dirudienez plegu-baldintzak eta prozedura negoziatu bidezko kontratazioa onartzen dituen ebazpena falta dela. Kontratazioko obra horren enkantea hutsik edo desertu geratu zenean idazkariari eskatu ziotela zegokion hurrengo zeregina edo pausoa, baina ez zuten dekretua egitearen aipamenik jaso. Orduan, obretako aurrekontuak eskatzen hasi ziren. Horregatik legezko formak ez direla errespetatu.

Alkateak krediturik eza ere aipatu du, aurrekontua onartu arte ez baitago inbertsioetako gastua luzatzerik, baina gastu hau egitea denon borondatea zela eta obra behar beharrezkoa dela azpimarratu du.

Jarraian, Otermin zinegotzi jaunak 204. dekretua ere aipatu du gogorarazteko "Cheyenne" enpresarekin arazoak izan zirela aktibitate-baimena emateko.

Azkenik, eztabaida handirik egin gabe, udalbatzarrak hartu du ondorengo

Erabakia

Alkateak 73 zenbakitik 210 zenbakirako dekretuen berri eman ditu eta, beraz, udalbatzarra jakinaren gain geratu da.

3.- EHUko psikologia fakultatearen eta Anoetako Udalaren arteko trebakuntza-lankidetzarako hitzarmena berri ematea.

Alkateak EHUko psikologia fakultatearekin sinatutako hitzarmenaren berri eman du.

Jarraian, EAJ-PNV/EA koalizioko bozeramailea den Uribarren zinegotzi jaunak galdetu du ea hitzarmen honek eragin ekonomikorik dakarren.

Alkateak erantzun dio ez dagoela ondorio ekonomikorik hitzarmenaren eraginez.

Hortaz, eztabaidarik gabe udalbatzarrak aho batez hartu du ondorengo

Erabakia

EHUko psikologia fakultatearekin sinatutako hitzarmenaren berri eman du alkateak eta, beraz, udalbatzarra jakinaren gain geratu da.

4.- 2.000 urteko likidazioaren onarpen-dekretuaren berri ematea.

Alkateak 2000ko likidazioa onartzen duen ebazpenaren berri eman du.

EAJ-PNV/EA koalizioko bozeramailea den Uribarren zinegotzi jaunak hitza hartu du 2000ko likidazioari buruzko zenbait azalpen eskatzeko.

Ordezko idazkari-kontuhartzaileak azaldu du likidazioan bi kontzeptu garrantzitsu daudela:

Alde batetik, *“diruzaintzako gerakin likidoa”*, 59.613.332 pezetakoa, derrigorrezko kontabilitate-eragiketak (kobratu eta ordaindu gabeko saldoak eta saldo kobragaitzak) egin ondoren, ekitaldiaren bukaeran udaletxeak daukan dirutza edo fondo likidoa adierazten duena.

Eta bestetik, *“aurrekontu emaitza”*, 27.060.883 pezetakoa, dagozkion doiketak egin ondoren, aurrekontuko eskubide onartuen eta obligazio onartuen arteko aldea adierazten duena.

Azkenik, eztabaidarik egin gabe eta inongo eranskinik gabe dagoen dagoenean onartu du udalbatzarrak ondorengo

Erabakia

2000. urteko likidazioa onartzen duen dekretuaren berri eman du alkateak eta, beraz, udalbatzarra horren jakinarekin gain geratu da.

5.- Idahoko legebiltzarraren ekimenaren aurrean adierazpen instituzionalari buruzko mozioa.

Alkateak irakurri du “Idahoko legebiltzarraren ekimenaren aurrean adierazpen instituzionala” izeneko ondorengo mozioa:

IDAHO-KO LEGEBILTZARRAREN EKIMENAREN AURREAN ADIERAZPEN INSTITUZIONALA

Martxoaren 11-ean Amerikako Estatu Batuetako, Idaho-ko estatuko Legebiltzarrean, Euskal Herriaren autodeterminazio eskubidearen aldeko ekimena onartu berri da. Ekimen horretan bertan, Euskal Herriak frantziar eta espainiar estatuarekin duen gatazkaren konponbiderako elkarrizketaren beharra jartzen da mahaiaren gainean.

Gure herriaren askatasuna eta bake bideratzearen bidean pausu garrantzitsua den hau, oso gertutik ari gara jarraitzen Euskal Herritar guztiok. Behin eta berriz, Idahoko, Estatu Batuetako eta nazioarteko iritzi publikoaren aurrean oso garbi geratzen ari da, Autodeterminazio eskubidearen aitortza alegia, Herri honek bere etorkizuna libreki erabakitzeko eta gauzatzeko aukera izatea dela, behin betikoz, hainbeste behar dugun bakea lortzeko bide bakarra.

Euskal Herriko eragile politiko eta sozialen gehiengoa gure Herria bake iraunkorra izan dadin lanean ari gara. Hala ere, nazioartekoak ere badu zer esanik Euskal Herria normalizazio politikoaren bidean sartzeko pausuen aurrean. Euskal Herria, nazio bat delako, eta era berean, nazioarteko legerietan munduko herri guztiei zor zaizkien eskubide politiko eta zibilen subjektu delako.

Anoetako udaletik, garrantzizko pausua eman delakoan gaude, eta bere ausardiagatik zorientzen ditugu Idahoko Legebiltzarra eta ekimen politiko hau bultzatu duten eragile eta pertsonak.

Hala eta guztiz ere, eta berriro ere, espainiar estatuko agintariek oso garbi utzi dute, Euskal Herriaren demokraziaren bidean edozeinek, edonon, ematen duen pausu ororen aurka ahalegin guztiak egingo dituela. Azken berrehun urtetan hori egin dute eta orain ere horretan ari dira, baliabide guztiak erabiliz.

Anoetako udalak, Idahoko legebiltzarrak egin duen bezala, espainiar eta frantziar estatuetatik etorri daitezkeen presio guztiei aurre egin eta gure Herriarentzat autodeterminazio eskubidearen aitortza gauzatzearen alde pausuak emateko konpromezu tinkoa hartzen du.

Horrela jakin arazten diogu, Idahoko Legebiltzarrari, espainiar eta frantziar estatuen ordezkari nagusiei eta orohar nazioarteko iritzi publikoari.

Euskal Herrian, 2002. urteko martxoan.

Jarraian, EAJ-PNV/EA koalizioko bozeramailea den Uribarren zinegotzi jaunak hitza hartu du proposatzeko Gasteizko Legebiltzarrean onartua izan zen mozioa gaurko saioan onartzea.

Alkate jaunak erantzun dio, printzipioz, mozio honen helburua eman den pausua zoriontzea dela eta Anoetako Udalak autodeterminazio eskubidearen gauzatzearen alde lan egitea. Beraz, helburua ez zen hango testua onartzea, emandako pausoa zoriontzea baizik.

Manu Odriozola zinegotzi jaunak hitza hartu du proposatzeko mozioa mahai gainean uzteko, geroago testu berria ekartzeko eta, azkenik, irakurri ondoren bidezko erabakia hartzeko.

Pedro M^a Peñagarikano zinegotzi jaunak ere adierazi du Gasteizko Legebiltzarrean onartutako testuaren berri badaukala, baina oso osorik ez duela irakurri. Beraz, mozio hori oraingoaren alternatiba bezala onartzea eskuartean bere osotasunean irakurri gabe ez zaiola iruditzen egin beharrekoa denik, zehatz-mehatz irakurri nahiago duela esan du.

Beraz, Gasteizko Legebiltzarrean onartutako testua ekarri eta irakurri arte udalbatzarrak hartu du ondorengo

Erabakia

Udalbatzarreko zinegotziek aho batez onetsi dute Idahoko legebiltzarraren ekimenaren aurrean adierazpen instituzionalari buruzko mozioa mahai gainean uztea.

6.- “Euskal Errefuxiatu politikoak Venezuelan” buruzko mozioa.

Alkateak irakurri du “Euskal Errefuxiatu politikoak Venezuelan” izeneko ondorengo mozioa:

MOZIO PROPOSAMENA

Venezuelako Errepublika Bolivartarrak gure herrikidea den Martin San Sebastian Espainiako Estatura estraditatzeko prozesuari ekiteko dauden aukeren gaineko informazioak direla eta, Udal Honek ondorengo adierazi nahi du:

- Espainiako Gobernuak egindako estradizio eskabideek Venezuelako Errepublika Bolivartarra bere errepresio estrategian inplikatzea beste helbururik ez dutela, Espainiako Gobernuak Euskal Herriaren askatasun eta subiranotasun nahiarekin amaitzeko darabilen errepresio estrategia horretan, hain zuzen ere.*
- Espainiako eta Frantziako Estatuak Euskal Herriari bere oraina eta eroa erabakitzeko eskubidea ez onartzea dela izaera politiko nabarmena duen gatazka hori bizirik mantentzen duena, bi aldeetan itzelezko mina eta sufrimendua sortzen dituen biolentziazko espresioekin batera agertzen den gatazka.*
- Gatazka horren historia luzea dela adibiderik onena errepresioak gatazka bera konpondu ordez, luzatu, erradikalizatu eta aldeetan sortutako mina areagotu baizik egiten ez duela frogatzeko.*
- Gatazka horren eta gatazka horri konponbide demokratikoa ez ematearen ondorio dela hainbat euskal herritarrek bere etxean, familia, lagunak eta aberria utzi izana beste herrialde batean babesa bilatzeko. Hortaz, ukaezina dela errefuxiatuon izaera politikoa eta Martin San Sebastianena kasu konkretu honetan.*
- Venezuelan errefuxiatutako Martin San Sebastianen izaera politikoa bera soilik, aski arrazoi badela Espainiako Estatuaren menpe utzi lezakeen estradizio prozesu baten menpe ez jartzeko edo Espainiara entregatua ez izateko.*

- *Aipatutako arrazoi horiei Martin San Sebastianek Venezuelan emandako urte luzeak gehitu behar zaizkiela, hau da, Herrialde horretan erabat integratu dela bertako elkarbizitza normalean inolako eragin txarrik sortu gabe, areago, gainontzeko venezuelarrekin batera, herrialde horren garapenean lagundu egin duela.*
- *Martin San Sebastianen presentzia Venezuelan, Espainiako eta Venezuelako Gobernuen arteko akordio baten ondorio dela. Akordio horren arabera, Venezuelak gure herrikideari eta beste euskaldun batzuri harrera egin zien, hain zuzen ere, euren errefuxiatu politiko izaera oinarritzat hartuta eta, izaera horren arabera izan da orduz geroztik, Venezuelak izandako Gobernuenandik jaso duten tratamendua eta kalifikazioa.*
- *Pertsonak ezin direla transakzio politiko edo ekonomikoetan elkartrukatzeko merkantzia legez erabili Mugica Herzog jaunak (Espainiako Herriaren defentsariak) orain berritan Venezuelako prentsan esan zuen moduan. Adierazpenotan, errefuxiatuok "eperako gordailu" legez kalifikatu eta Espainiako Gobernuak epea bukatu dela irizten badio akordioak ere bukatutzat jo behar direla eta errefuxiatuok entregatuak izan behar dutela adierazi baitzuen Mugica Herzog-ek.*
- *Izan ere, Amnistia Internazionala, Kartzeletarako Nazioarteko Behatokia, Torturaren Prebentziorako Batzordeak... prestigiodun erakundeek urtero urtero adierazi izan duten moduan, arrazoi politikoengatik atxilotu eta/edo kartzelaraturako euskal herritarren giza eskubideak sistematikoki urratzen dira bai kuartel eta komisaldegietan baita kartzeletan bertan ere.*
- *Hori horrela izanik, Tortura Prebenitu eta Zigortzeko Hitzarmen Interamerikarraren 13. artikulua dioena gogoratzea komeni dela, ondorengo adierazten baitu bertan zehatz-mehatz: "ez da estradiziorik emango eta ezta eskatutako pertsona itzuliko bere bizitza arriskuan egon daitekeelako susmo oinarriturik badago, tortura, tratu krudel, ez-gizatiar edo degradanteenpean ezarria edo Estatu eskatzailean horretarako adhoc sortutako salbuespenezko epaitegiekin epaituko duten susmorik badago".*

Eta 1984ko abenduaren 10eko Tortura eta beste Tratu edo Zigor krudel, ez-gizatiar eta degradanteen kontrako hitzarmenaren 3. artikulua dioena: "Estatu Kideek ez dute pertsona bat beste Estatu batetara kanporatu, itzuli edo estraditatu torturapean ezarriko dutelako arriskua dagoela sinesteko oinarritutako susmoak daudenean".

Arestian aipatutako arrazoi guzti horiengatik, eta garai historiko ezberdinetan Venezuelan babesa bilatu duten euskaldun guztiekin herrialde horrek izan duen asilo politika ohiturak ematen digun konfidantzagatik eskatzen

diogu Venezuelari, ez dezala entregatu ez estraditatu euskal errefuxiatu politikorik eta berauen egoera erregularitzeko beharrezko diren neurriak martxan jarri ditzala errefuxiatuok egun bizi duten kezka eta indefentsio egoera horrekin behin betiko amaitzeko.”

EAJ-PNV/EA koalizioko bozeramailea den Uribarren zinegotzi jaunak hitza hartu du adierazteko berak ordezkatzeko duen talde politikoa ados dagoela eta beraz, baieztatu botoa emango dutela.

Beraz, inongo eranskinik gabe, mozioa onartu du udalbatzarrek.

Erabakia

Udalbatzarreko zinegotziek aho batez onetsi dute “Euskal Errefuxiatu politikoa Venezuelari” mozioa.

7.- Giza Eskubideen aldeko mozioa.

Alkateak irakurri du “Giza Eskubideen aldeko” izeneko ondorengo mozioa:

EUSKAL HERRIAN ESZENATOKI DEMOKRATIKOA ERAIKITZEKO PROPOSAMENA

Zioa:

Urteak eta mendeak dira Herri honek bakea ez duela ezagutzen. Belaunaldiz belaunaldi Estatuaren indarkeria mota ezberdinak jasan ditugu eta euskaldunok ez gara gai izan ezta Euskal Herriari buruzko egoeraren irakurketa amankomuna elkarrekin egiteko ere.

Arazo politikoak direla medio, gatazka piztuta daukagu, gatazka bortitza eta gogorra gehienetan, zeinean elkarriketa alboratu eta, tamalez, indarkeria eta erasoek nagusitu egin dira gure gizartean. Guda giro horren adierazle nabarmena, eskubide ezberdinen urraketa multilateral da eta, egunak joan egunak etorri, herri zein sektore politiko eta sozial anitz bere oinarritzko eskubideen ukazioa zer den jakin ongi badakite.

Gutxieneko baldintza demokratikoak guztion artean adostu behar ditugu, marko demokratiko bat Euskal Herrian giza-eskubide guztiak, indibidualak zein kolektiboak, bermatu ahal izateko. Hauxe da oinarritzko konpromisoa egoerari konponbide sendoa eman nahi bazaio, bestelako etorkizuna eginez.

Gauzak honela, ondoko hau adierazten dugu:

Behin betiko konponbide baterako ezinbestekoa da esparru demokratikoa osatzea, non, eskubide guztiak, bai kolektiboak, bai gizabanakoenak, errespetatuak izango diren, elkarrekikotasunaz eta bazterketarik gabe.

Euskal Herrian, demokraziaren eraikuntza gure herriaren aitortzan oinarritzen da, nazioarte mailan onartutako eskubideak dagozkigularik. Eskubide horien egikaritzean, Euskal Herriari dagokio bere harreman politikoak erabakitzea, bai barne mailakoak, bai kanpoko begirakoak.

Gure herriko errealitate anitzaren alde zabaleko onarpena, Euskal Herriak bere etorkizuna erabakitzeko duen eskubidearen aitortzaren baitan artikulatu behar da.

Esparru demokratikoa, Euskal Herri osorako konponbide orokor eta integratzaileak bakarrik bermatuko duela oinarritzat hartuz, Udal honetako zinegotziok nazioarteko erakundeek (NBEren Giza-Eskubideen Nazioarteko Adierazpena, Eskubide Zibil et Politikoetarako Nazioarteko Ituna, Herri-Eskubideen Karta) araututako eskubide guztiekiko -Frantziak hasieratik sinatutakoak eta baita 1978 urtez geroztik Espainiak ere-, gure konpromisoa adierazten dugu, hitzez hitz bakoitzaren idazketa ofizialean datozen gisan onartuz, gure herria osatzen duten zazpi herrialdeetan aplikatzeko.

Gure alde zabaleko konpromisoa adieraziz, Udal honek alderdi guztiek osatutako Batzorde bat eratzea adosten du, onartutako guztiaren lanketarako eta garapenerako”.

Eztabaidatu ondoren, irakurritako mozioa udalbatzarrak bozkatu du eta bozketaren emaitza ondorengoa izan da:

Alde: 5 (Batasuna)

Aurka: ----

Abstentzioa: 4 (EA-EAJ-PNV)

Erabakia

Udalbatzarreko gehiengo osoa osatzen duten zinegotziek “Giza Eskubideen aldeko” mozioa onetsi dute.

8.- Premiazko gaitzak, mozioa gizarte zerbitzuetako hitzarmenari buruzkoa.

Alkate jaunak irakurri du ondorengo mozioa:

MOZIOA

Gizarte Zerbitzuen atalean funtzioen zehaztapena arautzen duen Eusko Jaurlaritzaren 155/2001 Dekretuan oinarrituz Foru Aldundiak proposatu duen hitzarmenaren aurrean, eta gizarte zerbitzuen baitan finantziario sistemak sortzen dituen ondorioak kontuan hartuz –dagokion txosten teknikoan ikusi bezala-, honako akordio hau hartzen du Udal honek, Osoko Batzarrean:

Foru Aldundiko Gizartekintzak gizarte zerbitzuen antolaketarako mahai gainean jarri duen hitzarmen proposamenaren balio gabezia aldarrikatzea, Foru Aldundia eta udalen arteko eskumenen banaketa argitzen eta errazten ez duelako, eta era berean, epe ertain-luzera begira, finantziario arazo larriak sortaraziko dituelako.

Udal hau eta Gipuzkoako gainontzeko udalak hartzen ari diren eskumenen finantzabideei buruzko azterketa bat egiteko eskatzea Gipuzkoako Foru Aldundiari eta Gizartekintzari.

Mikel Zubillaga zinegotzi jaunak hitza hartu du azaltzeko Tolosaldeko zinegotziek Foru Aldundiko gizartegintzako arduradunarekin bilera bat izan zutela gizarte zerbitzuetako hitzarmen-proposamenaren inguruko arrazoiak ezagutzeko. Eusko Jaurlaritzak, hiru diputazioek eta “Eudel” erakundeak adostutako testua izan dela gizarte zerbitzuetakoa eta, beraz, berak ez duela ikusten hitzarmen-proposamenaren kontra jartzea. Gainera, udaletxetako gizarte langileekin hitz egin duela eta beraien ustez horrelako plan bat beharrezkoa zela. Zubillaga zinegotziak plan berri honek suposatzen duela ere baliabide gehiago gizartekintzan erabiltzea eta diru-gastu handiagoa izatea. Bukatzeko esaten du, Maximo Goikoetxearen ustez, mozio hau Batasuna talde politikoaren “pataleta” bat izan dela, hitzarmen-plan hori Batasunarekin harremanik izan ez zelako, baina ez gaizki dagoelako.

Jarraian, Mikel Errazkin zinegotziak galdera bat egin du, mozioa txosten tekniko batean oinarrituz teknikariek aurkeztu dutela eta, beraz, aipatu “pataleta” zenbaterainokoa ote den.

Mikel Zubillaga jaunak hitza hartu du berriro adierazteko eztabaidatzen ari diren mozioa Tolosaldeako udaletxeetan aurkeztu izan dela, eskualde honetan Batasunak indar politikorik nagusia delako, baina beste udaletxe askotan diputazioko plana onartu izan dela eta Batasuneko zinegotziak alde jarri direla. Horregatik, berak galdetu du nondik aterata ote dauden datu tekniko horiek, ez baitute inongo zentzurik, inongo logikarik

Maite Aizpurua zinegotziak erantzun dio datuak diputazioak bidalitakoak direla eta horren arabera konturatu direla gehiago ordaintzea tokatzen zaiela. Lehenago milioi bat eta erdi ordaintzen zuen udalak eta oraingo eskumen-banaketarekin lau milioi gehiago. Berak adierazi du udaletxe gutxik sinatu dutela diputazioko hitzarmen-plana eta Batasunak diputazioan, bere garaian, salatu zuela prozesua nola zihoan. Beraien ustez, ez dute onartzen "Eudel" hau negoziatzeko erakundea denik. Hitzarmenean jasotzen dira udalek hartu behar dituzten eskumenak eta diputazioak eskala balore-sakontze hori egiten du. Beraz, Foru Aldundiak eskumenak jartzen ditu baina gero ez du laguntzen diruaz edo baliabide ekonomikoak ematen, zenbait zerbitzu arriskutan edo oztupoak izango dituzte eman ahal izateko.

Uribarren zinegotziak ere hitza hartu du adierazteko egia dela udal eskumenak zabaldu nahi direla Eusko Jaurlaritzaren, hiru aldundiren eta udaletxeen artean adostutako plan berri honen bitartez eta horrek finantza hazkundea suposatzen duela udalantzako. Hala eta guztiz, bere talde politikoa hitzarmenaren alde dago.

Peñagarikano zinegotziak hitza hartu du adierazteko gai honetan (gizartekintzako) gorakada izugarria ematen ari dela, baina momentu honetan milioi t' erditik lau milioi eta pikora baldin badoaz Anoetako Udaletxeari eskatzen zaion esfortzua %100eko 300ekoa dela eta berak ez dakit diputazioko kontuak horrenbesteko salto eman duen, seguraski ezetz. Beraz, beraien gain eskumenak ematen zaizkio udalari baina udalak ordainduta.

Alkateak hitza hartu du esateko akatsik okerrera izan dela Anoetako Udalari kontsulta ez egitea, nahiz eta "Eudel" erakundearen barruan egon. Arau guztiak kanpotik, diputaziotik, jarrita daude eta udalak bakarrik ordaindu egiten du, Beraz, badago normatiba bat udalari kontsultatu gabe. Finantza aldetik ez dago finantza-plan bat zerbitzu-zabalkunde hau ordaintzeko, orain arte izandako finantzabideetaz baliatuz eman beharra dago.

Azkenik, Zubillaga zinegotziak adierazi du esfortzu ekonomikoa eskatzen duela eta beste baliabideak horretarako erabili beharko dira. eta alkateak erantzun dio

nonbaitetik atera beharko duela diru-kopuru hori ordaintzeko, eta horretarako beste zerbitzu batzuen ordean egin beharko dutela.

Beste eztabaidarik egin gabe, udalbatzarrak mozioa bozkatu du eta bozketaren emaitza ondorengoa izan da:

Alde: 5 (Batasuna)
Aurka: 4 (EA-EAJ-PNV)
Abstentzioa: ----

Erabakia

Udalbatzarreko gehiengo osoa osatzen duten zinegotziek gizarte zerbitzuetako hitzarmenari buruzko mozioa onetsi dute.

9.- Anoetako Emakumeak: 2002. urtean jorrazeko plangintza orokor baten proposamena onartzea.

Maite Aizpurua zinegotziak aurkeztu du ondorengo proposamena:

ANOETAKO EMAKUMEAK:

2002. URTEAN JORRATZEKO PLANGINTZA OROKOR BATEN PROPOSAMENA

2001eko ekainaren 6ko udalbatzak aprobata zuen lehenengoz Anoetan emakumeen arloa garatzeko plangintza orokor baten proposamena. Bertan burutzekoak ziren ekimenez artean berdintasun agente baten kontratazioa zegoen INEMen bidez. Urte bat beranduago, esan dezakegu lehen urrats hau eman egin dela, eta, INEMeko Enplegu Sustapenerako Programak direla medio, berdintasun agente bat -Cristina Puerta Rubio- lanean aritu dela lanaldi osoan 6 hilabetez.

Berdintasun agentearen lana maiatzaren 4an bukatutzat eman da, eta, gure udalerrian egin duen ikerketaren nondik norakoak eta datu zehatzak txosten batean jaso dira. Ikerketaren emaitza nagusiak arlo desberdinetan sailkatu dira (hezkuntza, lana, partaidetza soziokulturala eta aisia, udalaren jarrera, zerbitzu komunitarioak...), eta azaldu diren beharrei erantzuteko ekintza positiboen plan baten zirriborroa landu du berdintasun agenteak. Plan hau hala nola ikerketaren emaitza garrantzitsuenen txostena Kultura eta Gizarte Zerbitzuetako batzordean banatu dira, eta, beraz, eskuartean daukagun informazioa oraindik aztertze dago.

Hala ere, ekintza positiboen plan hori sakonki aztertu arte, eta bertan azaltzen diren konpromezuekiko erabaki finko bat hartu arte, aurreko urtean onartutako plangintza orokorraren jarraipena egiteari heltzea proposatu nahi da oraingoan.

Berdintasun agenteak proposatu duen plan orokorraren zabaltasuna ikusirik, eta hau garatzeko Anoetako giza baliabideak oso murriztuak direla gogoan hartuz, lehentasunak ezartzeko beharra ikusi dugu eta horregatik 2002. urtean gehienbat bi arlo jorratzea proposatzen dugu: lana eta udala. Beraz, beste eremuak albo batera utzi gabe, baina bi horiei bereziki garrantzia emanez, aurtengo plangintzaren barruan hurrengo ekintzak bultzatzea proposatzen da:

****Udaleko Kultura eta Gizarte Zerbitzuetako arloen koordinazioa landu:***

Dagoeneko hainbat ekimen aurrera eraman dira bi zerbitzu hauen arteko eginahalei esker, eta elkarlan honen jarraipenari ezinbestekoa deritzogu proiektuak era egokian bideratzeko. Honek lanaldiaren barruan gai hau lantzeko espazio bat gordetzeko beharra ekarri die gizarte langileari eta baita kultur dinamizatzaileari ere.

****Udaletxeko zinegotzi eta langileen gai honekiko sentsibilizazioa landu:***

Udaletxe barruan eta eguneroko lanean berdintasuna lantzea ezinbestekoa ikusten da oinarri sendo bat edukitzeko, ezin baita kanpora begira gai hau jorratu barruan aztertu ez bada. Honi heltzeko, eta generoaren ikuspegia udal politikan aintzakotzat har dadin oinarritzkoak diren hainbat kontzeptu ezagutu eta barneratu behar dira; eta prozesu honetan oso lagungarriak izango lirateke mota desberdinetako ikastaroak:

- Berdintasunaren garrantziaz jabetzeko
- Generoaren ikuspegia plangintza eta politiketan sartzeko
- Hizkuntzaren erabilera ez-sexista sustatzeko

****Udalak hitzaldia, antzerki eta bestelakoak antolatzen dituen guztietan haurtzaindegi zerbitzua jarri,*** emakumeei horrelako ekitaldietara agertzeko erreztasunak emateko. Ezin dugu ahaztu gaur egun emakumeen ardurapean jarraitzen dutela etxeko lanen eta seme-alabeak zaintzearen ardura, honek dakarrek guztiarekin. Emakumeen integrazio sozial eta kulturala benetan gauzatu nahi baldin bada, bideak jarri beharko dira hori posiblea izan dadin.

****Udal emakume langileei famili arrazoiengatiko eta gurasoentzako baimen, lizentzia edo eszedentziei buruzko informazioa eskaintzea***

****Emakumeen enplegua sustatu nahian, inguruako enpresei informazioa helarazi emakumeak kontratatzeak dituen abantailaz:*** erakunde desberdinek ematen dituzten dirulaguntzak etabar.

***Lan merkatuan sartu edo itzuli nahi duten emakumeei informatzea eta aholkatzea:**

*Tolosaldean dauden enplegu erakundeak ezagutarazi

*Lan munduan sartzeko birziklatzeko ikastaroak antolatu (informatika etab.) eta eskualdeko ikastaroei buruz informatzea

***"Berriak Berri" aldizkarian sortu den "Emakumeen txokoa" mantentzea ez ezik, denboraz indartu** eta eta herriko emakumeen ahotsaren bozeramalea den tokia bihurtzeko ahaleginak egin, herriko emakumeen partaidetza sustatzeko inizatibak antolatuz

***Martxoak 8 Emakumeen Nazioarteko Eguna ospatzeko egitarau bat osatu:** aurten emakume baserritarren gaia izan dugu ardatz, eta EBEL Elkarrekin antolatutako erakusketa (Juan Gorritik egindako egurrezko eskulturak) Anoetara ekarri zen; aldi berean, Udalak eskultura horietako bat erosi du emakume baserritarrek beti izkutuan egindako lanaren errekonozimendu gisa. Herriko emakume baserritarrei omenaldi bat egin zitzaion martxoaren 9an, eta, haonez gain, bestelako ekintzak ere antolatu ziren: antzerkia, hitzaldia, afaria...

***Bortizkeria sexistaren aurkako egunaren inguruan sentiberatze kanpaina bat antolatu:** etxeko indarkeriari eta sexu-erasoei buruzko problematikaz eta horiei aurrea hartzeko moduez sentsibilizazio ekintzak burutu, dauden baliabideen informazioa eman eta horrelako kasuetan salaketa jartzera bultzatuz

***Emakumeen interesekoak diren ikastaroak bermatu:** Yoga, aerobic, eskulanak, autoestima, famili harremanak..., eta hauek burutzeko behar diren lokalak egokitze konpromisoa hartu; ikastaro hauek emakumeak elkartzeko abiapuntua izanik, erraz ditzakete etorkizun batean emakumeen elkarte baten sorrera

***Liburutegian "Andra" egunkariaren harpidetza egin:** hilabetekari honek emakumeekin loturiko gaiak jorratzen ditu bereziki, eta egileak gehienbat emakumeak dira. Egunkari honi esker, hainbat berrik -beste komunikabideetan oihartzunik ez dutenak- leku oparoa izaten dute.

***Hezkuntza arloan, Anoetako ikastolan berdintasuna lantzeko lehen urratsak eman** eta gai honetara hurbiltzeko ariketa praktiko batzuk egin, ikastola bere kolaborazioa emateko prest baldin badago.

Guzti hau burutu ahal izateko Kultura eta Gizarte Zerbitzuetako teknikariok hau proposatzen diogu Anoetako udalbatzari:

*2002. urtean jorratzeko plangintza orokor baten proposamen hau onartzea

*Aurtengo udal aurrekontuetan 6.000 euroko partida gordetzea hemen azaldu diren ekimenak garatu ahal izateko

Anoeta, 2002ko maiatzaren 2a

Jarraian, Zubillaga zinegotziak hitza hartu du galdetzeko gizarte zerbitzuetako batzordeetan planteatutako aurrekontua hirurehun edo laurehun mila pezetakoa ez ote zen, eta oraingoa, ordea, milioi batekoa (6.000 eurokoa) da.

Aizpuru zinegotziak erantzun dio aurreko ekitaldian milioi erdikoa zen gastua, baina aurtengo ekitaldian bikoiztu egin dela azaldutako ekintza guztiak egin ahal izateko.

Besterik gabe, inongo eranskinik egin gabe proposamena onartu du udalbatzarrek.

Erabakia

Udalbatzarreko zinegotziek aho batez onartu dute:

- 1.- Anoetako Emakumeak: 2002. urtean jorrazeko plangintza orokor baten proposamena.
- 2.- Aurtengo udal aurrekontuetan 6.000 euroko partida gordetzea proposamenean azaldu diren ekimenak garatu ahal izateko.

Bilkura amaiturik, agiri hau egiten dut lehendakariaren oniritziarekin, eztabaidatutakoaz eta erabakitakoaz fede emateko.

Anoeta, 2002ko maiatzaren 9an

Iñaki Arrue Espinosa
Bitarteko idazkaria

O.e.
Jose M^a Sarasola Goenaga
Alkatea